



Azpeitiko Udala

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatza osoak 2024ko irailaren 10ean egindako bilkuran honako hau dioen erabakia hartu zuela:

AZPEITIKO HAPO-REN 1 ALDE ZAHARRA H.E.RAKO PLAN BEREZIARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA (2024PLAN0010).

Aurrekariak:

Azpeitian indarrean dagoen plangintza orokorra Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) testu bateginak osatzen du. Testu hori Udalbatzak onartu zuen behin betiko 2013ko irailaren 17ko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2013ko irailaren 25eko 183. zenbakian, 2013ko urriaren 11ko 195. zenbakian eta 2013ko azaroaren 6ko 211. zenbakian.

Plan horrek udalerri osoaren hirigintza-araubide orokorra zehazten du, "1. Alde Zaharra" Hirigintza Eremuarena barne (94.704 m²).

"1 Alde Zaharra" Hirigintza Eremurako Udalak Plan Berezi bat tramitatzea erabaki zuen, ezarritako hirigintza-araubidea egokitzeko, honako gai hauei dagokionez:

1.- Eraikinetako estalkipeko solairuan etxebizitza independenteak gaitzea eta ezartzea, betiere horretarako beharrezkoak diren baldintzak betetzen badira, bizigarritasunari, irisgarritasunari eta abarri dagozkienak barne, eta baita gai honetan eta hirigintza-plangintzan indarrean dauden legezko xedapenak betetzen badira, Plan Berezi hau barne.

2.- Ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritako etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak aplikatzea, 10. artikuluan aurreikusitakoekin bat datozen salbuespenak barne, hiri-eremuko morfologia bereziarekin lotutako baldintzatzaileek justifikatuta (lurzatikoa, eraikuntzakoa...).

3.- Bizitegi-eraikin horien fatxadetan hegala gaitzea eta ezartzea, kontuan hartuta, besteak beste, kaleen edo espazio publikoen zabaleren edo sekzioen ondoriozko baldintzak.

4.- Eraikin horietan dauden etxebizitzak zatitzea edo bereiztea, eta irisgarritasun-baldintzak betetzea; aldez aurretik igogailuak ezartzearen baldintzapean.

5.- Eremuko bizitegi-eraikinen estalkietan terrazak gaitzea, haien baldintzak kontuan hartuta.



Azpeitiko Udala

6.- horien fatxadetan hegala gaitzea eta ezartzea, kontuan hartuta, besteak beste Bizitegi-eraikin horien estalkietan terrazak jartzea, haien baldintzak kontuan hartuta.

7.- Goiko kaleko 2., 4., 6. eta 8. Zenbakietako lurzatieen hirigintza-araubidea doitzeta edo argitzea; horretarako, indarrean dagoen plangintzak kale horren aurrealdeko beheko solairuan aurreikusten duen erabilera publikoko ataripea kentzea.

Azpeitiko Udalak sustatutako Plan Bereziaren dokumentua eta ingurumen-dokumentu estrategikoa Santiago Peñalba Garmendia arkitektoak zuzendutako talde teknikoak idatzi zuen (apirila 2024).

Planeamenduaren dokumentu hori lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa den ekainaren 30eko 2/2006 Legearen eta Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2022 Dekretuaren arabera tramitatzen ari da. Modu berean planak jaso behar dituen ingurumen-alderdiak baloratzeko ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea eta planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua izango dira kontutan.

Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak **2024ko maiatzaren 13an** Plan Bereziari eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoari hasierako onarpena eman zion. Akordio horretan, eta Udalaren arkitektoak egindako txostenak jasotako arrazoiak kontuan hartuz, Udalak zenbait zehaztapen egin zituen Plan Bereziaren sartzeko. Horrez gain, partehartze programa bat ere onartu zen.

- Goiko kaleko 2an dagoen orubea ekipamendu komunitario gisa sartzeta, Udalari atxikita.

- Eremu honetako arau partikularrak erregularizatzea, estalkipekotzat hartuz zuzenean estalkiaren forjatua edo teilatuaren azpian dagoen solairua, fatxadaren azaleraren ondoriozko altuera edozein dela ere.

Plangintzaren dokumentu teknikoa eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Organoaren aurrean izapidetu ondoren, organo horrek 2024ko uztailaren 26an egin zuen dagokion ingurumen-txosten estrategikoa, eta testuinguru horretan egindako txosten sektorialak igorri zituen. Horiei Udalak egindako eskaerari erantzunez emandakoak gehitu zaizkie.

Plan Bereziaren tramitazioan jaso diren txosten sektorialak:

- Telekomunikazioak arautzen duen maiatzaren 9/2014 Legearen baitan Estatuko Funtzio Publiko eta Transformazio Digitaleko Departamentuari (Telekomunikazio Zuzendaritza): 2024ko ekainaren 17an jaso da txostena.



Azpeitiko Udala

- Trantsizio Ekologikoa eta Reto Demografiako Ministeritzako Energia eta Mina Zuzendaritzak txostena egin ondoren, 2024ko maiatzaren 29an jaso da Udal honetan.

- GFAko Bide Azpiegituretako Departamentuak 2024ko ekainaren 5ean aldeko txostena bidali du Udalera.

- Ura Ur Agentziak 2024ko maiatzaren 29an dagokion aldeko txostena eman du.

- Ur Kontsortzioak dagokion txostena egin du 2024ko ekainaren 25ean.

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatea eta Ekonomia Zirkularreko Zuzendaritzak 2024ko uztailaren 27an Ingurumen Txosten Estrategikoa egin du (2024ko abuztuaren 29an argitaratua EHAO-n).

- Estatuko Garraio eta Mugikortasun Jasangarrirako Ministeritzako Abiazio Zibileko Zuzendaritzak emandako txostena (2024ko abuztuaren 16an jaso da).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Departamentuak egindako txostena. Txosten hau 2024ko abuztuaren 23an jaso da.

Horrez gain:

- Udalaren Parekidetasun Sailak generoaren araberako eraginaren aurretiazko Ebaluazioa egin du (2024ko maiatzaren 17ko txostena).

- Hirigintza eta proiektu Alorrean Eragin Linguistikoaren ebaluazioa egiteko Batzordeak 2024ko maiatzaren 29an egindako bileran planari dagokionez ez duela hizkuntzaren inpakturik jakinarazi zen.

- Espedientean jaso dira Udalaren arkitektoaren eta idazkariaren aldeko txostenak.

Partaidetza Programari dagokionez:

- Alkatetzak hasiera eman ondoren, espedientea jendaurrean egon da. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2024ko maiatzaren 22an argitaratu zen lehen aldiz, eta jendaurreko epealdiaren luzapena onartu ondoren 2024ko uztailaren 2an argitaratu zen. Horrez gain, El Diario Vasco egunkarian, Udalaren iragarki taulan eta Udalaren web orrian ere gaiari buruzko informazioa eman da. Guztira uztailaren 15era arte egon da espedientea ikusgai, eta denbora honetan ez da alegaziorik aurkeztu.

Partehartze programa honen baitan jendaurreko erakustaldia egin zen 2024ko ekainaren 25ean. Horrez gain, Udal Plangintzako Aholku Batzordeak 2024ko uztailaren 23an gaiaren azterketa egin zuen.



Azpeitiko Udala

Talde teknikoak jendaurreko erakustaldiari dagokionez, eta prozeduraren baitan emandako **balorazio txostenak** kontuan izanik, Plan Bereziaren dokumentu teknikoa osatu du (iraila 2024). Horrez gain, jendaurreko erakustaldiaren prozesuari buruzko balorazio-txostena eta eremuko Plan Berezia izapidetzean emandako txostenen inguruan balorazio teknikoa egin du (espedienteen jaso da bere edukia).

Txostenak prozedurarekin jarraitu eta Plan Bereziari behin betiko onarpena ematea proposatu du hasierako onarpenaren akordioak eta tramitazioan jaso diren zehaztapenak Testu Bateratu batean jaso ondoren.

Plan Bereziaren Testu Bateratua osatu da, eta bertan jaso dira hasierako onarpenaren akordioan eta tramitazioan jaso diren zehaztapenak.

Plan Bereziak, honako zehaztapen hauek jasotzen ditu:

- Goiko kaleko 2. zenbakian dagoen orubea komunitatearen ekipamendutzat jotzen da zehatz-mehatz.

- Eremuko arau partikularrak berregokitu egin dira, eta estalkipetzat hartu da zuzenean forjatua edo estalki-taularen azpian dagoen solairua, fatxadaren azalera ateratzen den altuera edozein dela ere.

- Bizigarritasunari buruz xedatutakoaren ondorioetarako, karkabak patioen izaera bera izango dute.

- Plaza nagusiaren aurrealdean lehendik zeuden hegalkinak finkatuko dira, dokumentu honetako zehaztapenak Plaza Nagusiko 2 eta 3 zenbakiei eta Plaza Txikiko 2 zenbakiei dagozkien lursailetan aplikatzea izan ezik, betiere hiru lurzatien jabetzak adostutako proposamen bateratua aurkezten bada, eta hori Udalak onar dezan.

- Azpeitiko HAPOn Katalogoa osatzen duten eraikinetan egingo den esku-hartzean, lehentasuna emango zaio katalogatuta egoteari.

- Plan Bereziak Ingurumen Txosten Estrategikoan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak jasotzen ditu.

Plan Bereziak URaren txostenean ezarritako zehaztapen lotesle hauek jasotzen ditu:

- Urola ibaiaren aurreko fatxadetan, hegalek ibaiaren ibilguen zortasun-eremua eta jabari publiko hidraulikoa errespetatu beharko dituzte.

- Azpierzemuan (Goiko kalea 1, 5, 7 eta 13 -Acilona-), eraikuntzak Urola ibaiaren ibilguarekiko duen gutxieneko distantzia 10 metrokoa izango da, eta beti bete beharko da distantzia hori.



Azpeitiko Udala

- Uholde-arriskuari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren 42. eta 45. artikulua bete beharko dira.

-0-

Eskumena duen organoak dagokio behin betiko onarpena emango dio Plan Orokorraren aldaketari. Beharrezkoa izango da planaren edukia argitaratzea honek indarra izan dezan.

Akordioa hartzeko eskumena Udalbatzarena izango da, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1c) artikulua araberak, eta bere kideen legezko gehiengoak onartu beharko du (legearen 47.1.1l) artikulua).

Eta Kontuan izanik gaia Hirigintza eta Estrategia Batzorde berriemailean irizpidetu dela, Udalbatza Osoak aho batez, eta beti ere legezko kopuruaren gehiengoarekin ONARTU DU:

Lehen: Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 1 Alde Zaharra H.E. eremurako Hiri Antolaketarako Plan Bereziari **BEHIN BETIKO onarpena** ematea. talde teknikoak iraila **2024an** egindako **TESTU BATEGINA** kontuan izanik.

Testu Bateraginak, bere baitan jaso ditu azalpen atalean azaldutako zehaztapenak.

Plan Bereziaren edukia:

a) Dokumentu teknikoak:

Lehen dokumentua: MEMORIA (hiru dokumentu ditu bere baitan: planaren ordenazioa arrazoitzen duena, hizkuntzari buruzko ebaluazioa eta generoaren inpaktuaren ebaluazioa.

Bigarren dokumentua: HIRIGINTZA arauak

Hirugarren dokumentua: PLANA EXEKUTATZEKO ANTOLAMENDU ETA KUDEAKETA PROGRAMA.

Laugarren dokumentua: AZTERKETA EKONOMIKOA.

Bosgarren dokumentua: EXEKUZIO LABURPENA.

Seigarren dokumentua: PLANOAK.

b) Ingurumen dokumentu estrategikoa.

Bigarrena: Hirigintza dokumentua behin betiko onartzeak berekin dakar era guztietako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko etenaldia bertan behera uztea,



Azpeitiko Udala

Planean aurreikusitako zehaztapen berriek orain arte indarrean egon den hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuan.

Plan Berezia indarrean sartzeari begira, aipatutako 2/2006 Legearen 89. artikuluan azaldutakoaren arabera, bidezkoa da behin betiko onartzeko erabaki honetaz gain, hirigintzako arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Behin betiko onarpenaren erabakia lurralde historikoan zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan ere argitaratuko da.

Edonola ere, aurretik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.3 artikulua xedatzen duenez, behin betiko onespeneren xede den testuategina Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistrora bidaliko da gordailatzeko.

Plan Bereziaren dokumentuaren edukia Azpeitiko Udalaren web orriko Hirigintza atalean egongo da ikusgai: www.azpeitia.eus

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, Bilbon, bi hilabeteko epean, erabakia azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eta horrela jasoa gera dadin eta, alkate udalburuaren oniritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila eta hogeita lauko irailaren hamabian.

O.E.
ALKATEA,



Azpeitiko Udala



Azpeitiko Udala

Para que así conste, se hace saber que el siguiente texto es una traducción del original, redactado en euskera (Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi).

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, SECRETARIA DEL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA.

CERTIFICO: Que el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 10 de septiembre de 2024 adoptó el siguiente acuerdo:

APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL PARA LA URBANIZACIÓN DEL AU 1 ALDE ZAHARRA DEL PGOU DE AZPEITIA (2024PLAN0010).

Antecedentes:

El planeamiento general vigente en Azpeitia se completa con el texto refundido del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU). Dicho texto fue aprobado definitivamente por el Pleno en sesión celebrada el 17 de septiembre de 2013 y publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 183 de 25 de septiembre de 2013, nº 195 de 11 de octubre de 2013 y nº 211 de 6 de noviembre de 2013.

Este Plan determina el régimen urbanístico general de todo el municipio, incluido el del Área Urbanística 1 "Alde Zaharra" (94.704 m²).

Para el Área Urbanística 1 "Alde Zaharra", el Ayuntamiento acordó la tramitación de un Plan Especial para adecuar el régimen urbanístico establecido en relación con las siguientes cuestiones:

1.- Habilitar e implantar viviendas independientes en la planta bajo cubierta de los edificios, siempre que se cumplan las condiciones necesarias para ello, incluidas las de habitabilidad, accesibilidad, etc., así como las disposiciones legales vigentes en la materia y en el planeamiento urbanístico, incluido el presente Plan Especial.

2.- Aplicación de las condiciones de habitabilidad de las viviendas establecidas en el Decreto 80/2022, de 28 de junio, con las excepciones que se correspondan con las previstas en el artículo 10, justificadas por condicionantes relacionados con la morfología especial del ámbito urbano (parcelario, edificatorio...).

3.- La habilitación e implantación de voladizos en las fachadas de estos edificios residenciales, teniendo en cuenta, entre otras, las condiciones derivadas de las anchuras o secciones de las calles o espacios públicos.

4.- La división o segregación de las viviendas existentes en dichas edificaciones y el cumplimiento de las condiciones de accesibilidad, condicionadas a la implantación previa de ascensores.

5.- Habilitación de terrazas en las cubiertas de los edificios residenciales del ámbito en función de sus condiciones.



Azpeitiko Udala

6.- Habilitación e implantación de voladizos en sus fachadas, teniendo en cuenta, entre otros, la instalación de terrazas en las cubiertas de estos Edificios Residenciales, teniendo en cuenta sus condiciones.

7.- Ajustar o clarificar el régimen urbanístico de las parcelas 2, 4, 6 y 8 de Goiko Kale, eliminando el porche de uso público previsto por el planeamiento vigente en la planta baja del frente de dicha calle.

El documento del Plan Especial y el documento ambiental estratégico promovido por el Ayuntamiento de Azpeitia fue redactado por el equipo técnico dirigido por el arquitecto Santiago Peñalba Garmendia (abril 2024).

Dicho documento de planeamiento se encuentra en tramitación conforme a la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y al Decreto 46/2022, de 24 de marzo, por el que se regulan los procedimientos de aprobación de los Planes de Ordenación Territorial e Instrumentos de Ordenación Urbanística. Del mismo modo, para la valoración de los aspectos ambientales que debe contener el plan se tendrá en cuenta la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, y el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación estratégica de planes y programas.

El **13 de mayo de 2024** la Junta de Gobierno del Ayuntamiento aprobó inicialmente el Plan Especial y el Documento Ambiental Estratégico. En dicho acuerdo, y teniendo en cuenta las razones recogidas en el informe emitido por el arquitecto municipal, el Ayuntamiento realizó una serie de determinaciones para su inclusión en el Plan Especial. También se aprobó un programa de participación ciudadana.

- Incluir como equipamiento comunitario el solar sito en Goiko Kale 2, adscrito al Ayuntamiento.

- Regularizar las normas particulares de este ámbito, considerando bajo cubierta la planta situada directamente bajo el forjado o tejado de la cubierta, con independencia de la altura resultante de la superficie de fachada.

Tras la tramitación del documento técnico de planeamiento y del Documento Ambiental Estratégico ante el Órgano Ambiental del Gobierno Vasco, éste emitió el 26 de julio de 2024 el correspondiente informe ambiental estratégico, emitiendo los informes sectoriales emitidos en este contexto. A ellos se suman los concedidos en respuesta a la petición realizada por el Ayuntamiento.

Informes sectoriales recibidos en la tramitación del Plan Especial:

- En el marco de la Ley 9/2014, de 9 de mayo, reguladora de las Telecomunicaciones al Departamento de Función Pública y Transformación Digital del Estado (Dirección de Telecomunicaciones): se ha recibido el informe el 17 de junio de 2024.

- Previo informe de la Dirección de Energía y Minas del Ministerio de Transición Ecológica y Reto Demográfico, se ha recibido en este Ayuntamiento el 29 de mayo de 2024.

- El Departamento de Infraestructuras Viarias de la DFG remite el 5 de junio de 2024 informe favorable al Ayuntamiento.



Azpeitiko Udala

- La Agencia Vasca del Agua-URA ha emitido el 29 de mayo de 2024 el correspondiente informe favorable.

- El Consorcio de Aguas ha emitido el correspondiente informe con fecha 25 de junio de 2024.

- La Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco ha emitido el 27 de julio de 2024 un Informe Ambiental Estratégico (publicado en el BOPV el 29 de agosto de 2024).

- Informe emitido por la Dirección de Aviación Civil del Ministerio de Transportes y Movilidad Sostenible del Estado, recibido el 16 de agosto de 2024.

Informe elaborado por el Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Informe recibido el 23 de agosto de 2024.

Además:

- El Departamento de Igualdad del Ayuntamiento ha realizado una Evaluación previa del impacto en función del género (informe de 17 de mayo de 2024).

- En la reunión de la Comisión de Evaluación del Impacto Lingüístico en el Área de Urbanismo y Proyectos celebrada el 29 de mayo de 2024, se informó que el plan no tiene impacto lingüístico.

- Consta en el expediente los informes favorables del arquitecto y de la secretaria del Ayuntamiento.

Programa de Participación:

- Una vez iniciado el expediente por parte de la Alcaldía, el mismo se ha sometido a información pública. En el Boletín Oficial de Gipuzkoa se publicó por primera vez el 22 de mayo de 2024 y tras la aprobación de la prórroga del periodo de información pública se publicó el 2 de julio de 2024. Además, se informó sobre el tema en El Diario Vasco, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web del Ayuntamiento. En total el expediente ha estado expuesto hasta el 15 de julio y en este tiempo no se han presentado alegaciones.

En el marco de este programa de participación se abrió un periodo de información pública el 25 de junio de 2024. Asimismo, el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, con fecha 23 de julio de 2024, realizó un análisis del asunto.

En cuanto al periodo de información pública, el equipo técnico, teniendo en cuenta los informes de valoración emitidos en el marco del procedimiento, ha elaborado el documento técnico del Plan Especial (septiembre 2024). Asimismo, realiza un informe de valoración del proceso de información pública y una valoración técnica de los informes emitidos durante la tramitación del Plan Especial del ámbito, cuyo contenido obra en el expediente.



Azpeitiko Udala

El informe propone continuar con el procedimiento y dar la aprobación definitiva al Plan Especial tras recoger en un Texto Refundido los acuerdos de aprobación inicial y las determinaciones que se han recogido en la tramitación.

Se completa el Texto Refundido del Plan Especial con las determinaciones contenidas en el acuerdo de aprobación inicial y en su tramitación.

El Plan Especial contiene las siguientes determinaciones:

- El solar situado en el número 2 de Goiko Kale se considera estrictamente equipamiento comunitario.

- Las normas particulares del ámbito han sido readaptadas, considerándose bajo cubierta la planta situada directamente bajo el forjado o tablero de cubierta, con independencia de la altura que sobresalga en la superficie de la fachada.

- A efectos de lo dispuesto sobre habitabilidad, las cárcavas tendrán la misma naturaleza que los patios.

- En el frente de Plaza Nagusia se consolidarán los vuelos preexistentes, salvo que las determinaciones de este documento se apliquen a los terrenos correspondientes a los números 2 y 3 de Plaza Nagusia y 2 de Plaza Txikia, siempre que se presente una propuesta conjunta consensuada por la propiedad de las tres parcelas, para su aprobación por el Ayuntamiento.

- En la intervención en los edificios que conforman el Catálogo del PGOU de Azpeitia se dará prioridad a lo catalogado.

- El Plan Especial recoge las medidas protectoras y correctoras establecidas en el Informe Ambiental Estratégico.

El Plan Especial recoge las siguientes determinaciones vinculantes establecidas en el informe de URA:

- En las fachadas delanteras del río Urola, los voladizos de los edificios deberán respetar la zona de servidumbre del cauce del río y el dominio público hidráulico.

- En el subámbito (Goiko Kale 1, 5, 7 y 13 -Acilona-), la distancia mínima de la edificación al cauce del río Urola será de 10 metros, que deberá cumplirse en todo caso

- En cuanto a la inundabilidad, se deberán cumplir los artículos 42 y 45 del Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental.

-0-

La modificación del Plan General será aprobada definitivamente por el órgano competente. Será necesaria la publicación del contenido del plan para su vigencia.



Azpeitiko Udala

La competencia para adoptar el acuerdo será del Pleno, de conformidad con el artículo 22.1c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, que deberá ser aprobado por la mayoría legal de sus miembros (artículo 47.1.11) de la ley).

Y teniendo en cuenta que el asunto ha sido sometido a criterio de la Comisión Informativa de Urbanismo y Estrategia, por unanimidad del Pleno de la Corporación, SE ACUERDA:

Primero: Aprobación DEFINITIVA del Plan Especial de Ordenación Urbana del Área A.U. 1 Alde Zaharra del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia TEXTO REFUNDIDO elaborado por el equipo técnico en **septiembre 2024**.

El Texto Refundido contiene las especificaciones expuestas en el apartado expositivo.

Contenido del Plan Especial:

a) Documento técnico:

Primer documento: MEMORIA (incluye tres documentos: el que justifica la ordenación del plan, la evaluación lingüística y la evaluación de impacto de género).

Segundo documento: NORMAS URBANÍSTICAS

Tercer documento: PROGRAMA DE ORGANIZACIÓN Y GESTIÓN PARA LA EJECUCIÓN DEL PLAN.

Cuarto documento: ESTUDIO ECONÓMICO.

Quinto documento: RESUMEN DE EJECUCIÓN.

Sexto documento: PLANOS.

b) Documento ambiental estratégico.

Segundo: La aprobación definitiva del documento urbanístico implica la suspensión del otorgamiento de todo tipo de aprobaciones, autorizaciones y licencias en el ámbito en el que las nuevas determinaciones previstas en el Plan suponen una modificación del régimen urbanístico hasta ahora vigente.

A los efectos de la entrada en vigor del Plan Especial, de conformidad con lo expuesto en el artículo 89 de la citada Ley 2/2006, procede, además del presente acuerdo de aprobación definitiva, la publicación de las normas urbanísticas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. El acuerdo de aprobación definitiva se publicará también en el periódico o diarios de mayor difusión del Territorio Histórico.

En cualquier caso, con carácter previo, el artículo 89.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, dispone que el texto refundido objeto de aprobación definitiva se remitirá para su depósito al Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El contenido del documento del Plan Especial estará disponible en el apartado Urbanismo de la página web del Ayuntamiento de Azpeitia: www.azpeitia.eus

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo



Azpeitiko Udala

del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su última publicación.

Y para que así conste, expido la presente certificación en Azpeitia, a doce de septiembre de dos mil veinticuatro, con el visto bueno del Sra. Alcaldesa Presidenta.

V.B
LA ALCALDESA,



EKS | CSV: SINAd5fbf668-2be3-490b-b9e8-ce6696f18fb2

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01810>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01810>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	alde zaharra plan berezia behin betiko onarpenaren zertifikatua
CSV/EKS:	SINAd5fbf668-2be3-490b-b9e8-ce6696f18fb2